

JUSTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK 2020 GIZARTE PROIEKTU BERRITZAILEAK GARATZEA

2. ARLOA: ENPRESA-PROIEKTU SOZIAL BERRITZAILEAK GARATZEA

a) Bideragarritasun-eta merkatu-azterlanak.

Hauek sartzen dira: bideragarritasun-azterlanak, bazkideak bilatzea eta merkatu-azterketak.

b) Txosten eta azterketa tekniko zehatzak

Hauek sartzen dira: analisiak, entseguak, homologazioak, ziurtagiriak, eta proiektua garatzeko beharrezkoak diren proiektu teknikoak.

c) Produktuaren edo zerbitzuaren kontzeptua, ezaugarriak eta oinarrizko funtzionalitateak garatzea.

Merkaturatu ezin diren prototipoak edo proiektu-pilotoa definitzeko eta garatzeko gastuak sartzen dira, prototipoak ezin direnean amaierako produktutzat jo.

Hau da diruz lagunduko den gastua:

- Prototipoa edo proiektu-pilotoa zuzenean talde sustatzaileak egiten badu, prototipoa egiteko behar diren materialen gastuetarako laguntza emango da.
- Moldeak, aurremoldeak, tresnak, trokelak eta halakoak behar dituzten prototipoei dagokienez, gutxieneko pieza-kopurua ekoizteko balio duen eta gero erabilezina izango den aurremolde bat baino ez da ordainduko.

Ezin izango dute diru-laguntzarik jaso gastu hauek:

- Produktu berriak garatzeko proiektuak, baldin eta proiektua amaitu ondoren enpresaren produktuak jasotzen dituen paper-zorroan sartuta ez badaude.
- Enpresan dagoeneko badauden produktuak berritzeko, hobetzeko edo aldatzeko (funtzionaltasunak, estetika, lege araudia, etab.) proiektuak.
- Lehen prototipoaren aldaketak edo hobekuntzak.

d) Merkaturatzeko gastuak

Abiarazteko kanpainen gastuetan kontzeptu hauek sartzen dira:

- Irudi korporatiboa: enpresa berriaren irudi korporatiboaren diseinua, erakunde hornitzaile independenteek egindakoa.
- Katalogoak, diptikoak, triptikoak, aurkezpenak, eta abar: aipatutakoak diseinatzea eta hainbat euskarritan inprimatzea (papera, digitala, bideoa).
- Posta bidezko bidalketak, telemarketin
- Publizitatea: prentsan, aldizkari espezializatuetan, irratan, telebistan eta Interneten iragarkiak jartzea.
- Internet: domeinua erregistratzea, web orriak diseinatzea, zerbitzari batean egotea urte batean eta urte bateko SEO posizionatzea.



e) Marketin plana

Marketin plana egiteko gastuak sartzen dira, plan horretan marketinaren arloko estrategiak eta politikak ezartzea eta merkaturatzeari eta banaketari buruzko azterlanak sartzen badira.

f) Bidaiak eta azoketan parte hartzea

Kontzeptu hauek sartzen dira:

- Azoketan parte hartzea: izena emateko gastuak, erakustokien alokairuarenak, jarduera berria aurkezteko gelen alokairuarenak eta prototipoak eta materialak garraiatzeko behar diren ibilgailuen alokairuarenak.
- Joan-etorriak, garraio publikoan eta hegazkinean. Beren-beregi kanpo uzten dira taxien gastuak eta norberaren ibilgailuarenak.
Garraio publikoa erabiliz gero, bidaiatze-erakundeak aurkeztu ahal izango dira faktura gisa.
- Ostatu hartzea (ostatu eta gosaria). Beren-beregi kanpo uzten dira hotelean egindako bazkariak, telefono gastuak eta gastu estrak.

Proiektuaren taldeko pertsona egindako gastuetarako diru-laguntza emango da, onuraduna pertsona fisikoa zein juridikoa baldin bada.

g) Jabetza intelektual edo industrial babestea, erregistroak, ziurtagiriak eta homologazioak

Ondorengo gastuak lagunduko dira, betiere barneko garapenak babesteko gastuak badira:

- Teknikaren egoerari buruzko txostenak, asmatze-patentea (estatukoa, Europakoa edo nazioartekoa PCT), erabilgarritasun-eredua, diseinu industrialak, marka nazionalak edo Batasunekoak, zeinu bereizgarriak eta egile-eskubideak.

Lehen inskripzioaren gastuak bakarrik ordainduko dira eta kanpoan geratzen dira berritzeak, bosturtekoak eta antzekoak eragindako gastuak.

Patenteak erostetik edota erabiltzetik eratorritako gastuak ez dira diruz lagungarriak.

h) Gizarte-entitatea edo gizarte-entitate berritzaile berriak eratzearen ondorioz gastuak.

Notarioaren eta merkataritza-erregistroaren gastuak; memoriak, buletinak eta tituluak inprimatzeko gastuak; tasak, publizitate-gastuak; komisioak eta tituluak jartzeko bestelako gastuak, kapital-eraketa edo kapital-gehikuntza dela-eta egin badira

i) Proiektua garatzeko kanpoko aholkularitza.

Proiektuaren garapena aztertze fasean sortutako aholkularitza-gastuak sartzen dira

j) Proiekturako jarritako langileen barruko gastuak.

Soldata-gastuak eta entitate eskatzailearen konturako karga sozialak sartzen dira.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean pertsonak kontratatuta egon beharko dira.

k) Zeharkako gastuak.

Diruz lagundu ahal izango da proiekturako jarritako langileen barruko gastuen %5eko zenbatekoa.



l) Gizarte-eragina neurtzeko gastuak

Bizkaiko Foru Aldundiko ekintzailtzarako eta gizarte-berrikuntzarako programaren alderdi hauei buruzko hausnarketa-prozesutik eratorritakoak dira: eragina sortzea; gizarte-eraginaren neurketari buruzko adierazleen identifikazioa eta lehenespena, eta/edo adierazle horiei buruzko datuen bilketa.

m) Negozio-lokalaren errenta

Negoziarako lokalak Bizkaian egon beharko du. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean formalizatuta egon beharko du errentamendu-kontratuak, eta gehienez ere negozio-lokalaren urtebeteko errentamendua diruz lagunduko da.

n) Gizarte-enpresa edo gizarte-entitate berritzaile berria eratzearen ondoriozko prima.

Sozietatearen kapitala edo ondare-ekarpina eskrituran eta eskudirutan ordaindua izan behar dute, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.

Ezin da diru-laguntzarik jaso inbertsiogile-taldee, arrisku-kapitaleko sozietateei edo baliokideei dagozkien sozietatearen kapitalaren ekarpenetarako.

EPEAK

Diruz lagundu daitezkeen gastuak burutzeko epea: Gastuak 2019/01/01aren eta 2021/12/31ren bitartean egin eta ordaindu behar dira.

Fakturak eta ordainagiriak aurkezteko azken eguna: 2022/01/31.

DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Enpresak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Bitarteko eta amaierako justifikazioei dagokien jarduketa-memoria, eginiko jarduerak eta lortutako emaitzak jasotzen dituen, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web gunean dauden ereduaren arabera ([www.bizkaia.eus/gaiak/ Enpresak eta nazioartekotzea/ Ekintzailtza/ Berritzeko eta sortzeko gaitasuna/ Ekintzailtza eta gizarte-berrikuntza](http://www.bizkaia.eus/gaiak/Enpresak_eta_nazioartekotzea/Ekintzailtza/Berritzeko_eta_sortzeko_gaitasuna/Ekintzailtza_eta_gizarte-berrikuntza)).
- Gastua 15.000,00 eurotik gorakoa bada (BEZa sartu gabe) eta eskabidea aurkezten denean kontratatuta ez badago, egin beharreko lanen eskaintzei buruzko dokumentazioa.
- Lagundutako jarduerak egiteko kontratuak, behar bezala formalizatuak, hala behar denean.
- Eginiko marketin-plana, bideragarritasun- eta merkatu-azterlanak eta eginiko txostenak, halakorik badago.
- Eginiko aholkularitza-lanei eta haien ondorioei buruzko txostena.
- Faktura eta dagokion ordainketa-ziurtagiria, dokumentu bakarra erabiliz, diru-laguntza jaso dezaketen gastu bakoitzerako.
Dokumentu bakar batean aurkeztu beharko dira 50 eurotik beherako fakturak, hornitzaileen arabera sailkatuta.
- Proiekturako jarritako langileen barruko gastuak eskatu badira:



- o Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean dauden pertsonentzat, kotizazioen likidazioen zerrenda (RLC) eta langileen zerrenda nominalak (TC2), justifikazio aldiari dagozkionak, eta nominetan eginiko ordainketaren frogagiria.
 - o Langile autonomoentzat, nomina guztiak eta dagozkien ordainketen frogagiriak, bai eta justifikazio aldiko autonomoen ordainagiri guztiak ere.
 - o Proiektuan aritzen diren langileek emandako ordu kopuruaren ziurtagiria, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian dagoen ereduaren arabera.
- Erakundearen legezko erantzulearen ziurtagiria, egiaztatzeko BEZa ezin dela berreskuratu edo konpentsatu, Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.8. artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - Erantzukizunpeko deklarazioa, adierazten duena dekretuen babesean egindako gastuak justifikatzeko fakturak ez direla aurkeztu Europar Batasuneko diru-laguntzen programetan.
 - Ekintzailletza eta Gizarte Berrikuntza Programaren gizarte-eragina neurtzeko adierazleak, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web gunean dauden ereduaren arabera ([www.bizkaia.eus/gaiak/ Enpresak eta nazioartekotzea/ Ekintzailletza/ Berritzeko eta sortzeko gaitasuna/ Ekintzailletza eta gizarte-berrikuntza](http://www.bizkaia.eus/gaiak/Enpresak_eta_nazioartekotzea/Ekintzailletza/Berritzeko_eta_sortzeko_gaitasuna/Ekintzailletza_eta_gizarte-berrikuntza)).
 - Ekintzailletza eta Gizarte Berrikuntza Programaren gizarte-eragina neurtzeko adierazleak, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web gunean dauden ereduaren arabera ([www.bizkaia.eus/gaiak/ Enpresak eta nazioartekotzea/ Ekintzailletza/ Berritzeko eta sortzeko gaitasuna/ Ekintzailletza eta gizarte-berrikuntza](http://www.bizkaia.eus/gaiak/Enpresak_eta_nazioartekotzea/Ekintzailletza/Berritzeko_eta_sortzeko_gaitasuna/Ekintzailletza_eta_gizarte-berrikuntza)).

Adjudikatutako diru-laguntza proiektuaren gauzatze-mailaren arabera ordainduko da eta 3 ordainketa egingo dira, gehienez. Lehen ordainketa egiteko diru-laguntzaren %20 justifikatua egon beharko da, bigarren ordainketa egiteko diru-laguntzaren %40 eta hirugarren ordainketarako diru-laguntzaren gainerakoa.

Egindako lanak aurkeztu baino lehen, gastuen zenbateko osoaren % 25 ordaindu ahal izango da gehienez. Horretarako, faktura eta ordainagiria aurkeztu beharko dira.

Diru-laguntza jaso dezaken gastua izango da erakunde hornitzaile independenteei azpikontratutako lanaren zenbatekoa. Enpresa sustatzaileko langileek edo bazkideek egindako lanak ez dira diruz lagunduko, Diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27.7.d) artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik.